

# I I I. B I L T Z A R R E A



DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

TXT 20089

## BILTZARREKO ARAUTEGIA



# **BILTZARRERAKO ARAUTEGIA**

1.992ko Martxoaren 7an Gasteizen bildutako Batasun Nazionalak Biltzarreko plenoari eztabaidatu eta onartzeko, honako arautegi proposamena aurkeztea erabaki zuen:

## **1.- Biltzarrearen hasiera.**

Biltzarreari hasiera ofiziala Idazkaritza Nazionaleko kide batek emanen dio. Bitarte horretan Idazkaritza Nazionaleko lau lagunez osatutako behin-behineko Mahai bat izanen da Biltzarreko buru.

## **2.- Biltzarreko Mahaiaren hautaketa.**

Lehen aipatutako behin-behineko Mahaiak Biltzarreko plenoari Biltzarreko Mahaiaren osaketa proposamen hau aurkeztuko dio:

Iñaki Gonzalez Murua, Jose Luis Rezabal, Kepa Gordejuela eta Santos Indakoetxea Idazkaritza Nazionalaren izenean, eta Txaro Markinez, Damian Agirremota, Tere Bernal eta Fernando Iriarte, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren izenean hurrenez-hurren.

Kongresuko Mahaia hautatu eta gero, Idazkaritza Nazionalak utzi eginen ditu bere orain arteko eginkizunak, eta Mahaiak berak hartuko ditu bere gain, bai I.N.ren ordezkatzeginkizunak bai Kongresuaren bilakaerari dagozkion arazo guziak.

## **3.- Hiru Txostenak eztabaidatzeko metodoa:**

Metodo bera erabiliko dugu hiru Txostenetan:

- a) Txostena aurkeztu.
- b) Guztiarekiko zuzenketak aurkeztu (inork baldin badu).
- c) Guztiarekiko zuzenketak eztabaidatu.
- d) Guztiarekiko zuzenketak botatu.
- e) Zatikako zuzenketak aurkeztu, eztabaidatu eta botatu.
- f) Txostenaren azken botazioa.

## **4.- Zuzenketak eztabaidatzeko metodoa:**

Edozein zuzenketa eztabaidatu behar denean ere, metodo bera erabiliko dugu beti.

- a) Zuzenketa aurkeztuko du zuzentzaileak berak edo zuzenketa ekarri duen egiturako eledunak.
- b) Txosten-aurkezleen interbentzioa eta jarrera.
- c) Debate irekia.
- e) Zuzenketaren botazioa.

Txosten-aurkezleek zenbait zuzenketa onar baditzakete ere, arestian aipatutako metodoa errespetatuko dugu.

## **5. Botazioak:**

Txosten bat edo guztiarekiko zuzenketa bat Kongresuak onartu ahal izateko, botaziokoan bertan diren delegatuen botuen erdia eta bat gehiago bereganatu beharko ditu gutxienez.

Zatitako zuzenketak dagozkien txostenetan jasoakizanen dira, baldin eta kontrako baino aldeko botu gehiago bereganatu baditu; beraz, abstentzioak eta botu zuriak ez dira ezertarako ere kontatuko.

Ezin du inork bere botua beste delegatu baten esku utzi.

## **6.- Idazkaritza Nazionalaren hautaketa:**

Baldin eta Kongresuak Organizazio Txosteneko 4.5.3.2. eta 4.5.3.3. puntuen atzetik dagoen filosofia eta horietan planteatzen diren erantzunkizun guziak onartzen eta onesten baditu, honako hauxe izanen litzateke Idazkaritza Nazionala hautatzeko proposatzen den metodoa:

**6.1. Hautagarriak:** Hautagarri izanen dira ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiak:

- a) Eskubide osoko afiliatua izatea 91-12-31rako eta hautagai izatea onar dezala.
- b) Prest egotea Kongresuak euskarari buruz eta barne euskalduntzeaz onetsiko duen Ebazpena errespetatu eta osoki betetzeko.

**6.2. Hautesleak:** Agerikoa denez, Kongresura delegatu bezala etorritako guztiak.

**6.3. Hautagaien aurkezpena:** Hautagaiak edozein ordezkariak (delegatuak) aurkez ditzake. Ordezkari bakoitzak nahi hainbat hautagai aurkez ditzake, hautatu beharreko kopurua gainditu gabe, hoietakoko bakoitzarentzat ardura edo kargua zehazten duelarik.

**6.4. Hautaketa:** Idazkaritza Nazionalaren hautaketa ardura zehatzetarako egingen da.

Ardura zehatz bakoitzerako pertsona zehatz bat hautatuko da, alegia. Beraz, Biltzarreko Mahaiak, bozketan jarriko duen zerrendan, Idazkaritza Nazionalan dauden ardurak agerian jarriko ditu eta baita ere hoietako bakoitzerako proposatutako pertsonen izenak.

Jakinik pertsona bera ardura bat baino gehiagotarako aurkeztua izan daitekeela, ardura bat baino gehiagotarako hautatua izanez gero, botu gehien lortu duen ardurarako hautatu edo berezia izanen da, beste ardurarako (edo arduratarako) boto kopuruan hurrengoa gelditu dena hautatua izanen delarik.

Ordezkariek ardura bakoitzerako pertsona bakar bati eman ahal izanen die botua, eta nahi hainbat ardura edo kargutarako.

Botu kopuru berdina lortuko balute bi edo hautagai gehiagok, bozketari berri bat egingo litzateke berdindutako hautagaien artean.

Irteten den Idazkaritza Nazionalak hautagai zerrenda bat aurkeztu ahal izanen dio Biltzarreari.

**6.5. Herrialdeko Koordinatzaileen hautaketa:** Pertsona hauek Kongresuan bertan hautatuko dira, Herrialde bakoitzeko delegatuen artean eta horretarako deituriko Aparteko Batzarrean.

Herrialdeko Koordinatzaile izateko hautagaiak aurkeztu ahal izanen ditu Herrialde bereko edozein delegatuk. Eta hautagai hauek aurkeztu ahal izanen ditu lekuan-lekuko Herrialdeko Konferentziak ere.

Herrialde bakoitzeko delegatuen Aparteko Batzarrean hautatuak gertatu diren Herrialdeko Koordinatzaileak, gero Kongresuak berronetsi beharko ditu beren kargurako.

**6.6 Idazkaritza Nazionaleko Bokalak:** Baldin eta Idazkaritza Nazionalan 6 bokal (B 2, G 2, A 1, N 1) sartzea proposatzen duen zuzenketa Kongresuak onartu balu, honela egin liteke horien hautaketa:

a) Kongresuko Mahaiak Kongresuari aurkezturiko zerrendan leku berezi bat izanen da bokal hauen hautaketarako.

b) Leku honetan azalduko dira bokal izateko proposatu diren pertsona guztien izenak, zein Herrialdeetakoak diren aparte adieraziz.

c) Botazioa egiterakoan, delegatuek errespetatu egin beharko dute Herrialde bakoitzeko hautatu beharreko hautagaien kopurua.

### **6.7. Batzorde Iraunkor Nazionalaren hautaketa:**

Idazkaritza Nazionalerako hautatuak izaniko hautagaiak zein izan diren Kongresuko Mahaiak Kongresuari berri eman bezain laster, Idazkaritza Nazional berria bilduko da eta Batzorde Iraunkor Nazionala hautatzeari ekingo dio.

## **7. Kongresuko ebazpenak**

Biltzarreko Mahaiak Plenoaren erabakipean utziko ditu honako ebazpen hauek:

- a) Sindikatuko estatutoak.
- b) Indarkeria eta Pakea.
- c) Industria Egoera.
- d) Euskara.

Ebazpen hauetaz gainera, Sindikatuko edozein egiturak idatzirik aurkeztu ahal izanen dio Kongresuko Mahaiari, Kongresuan bertan, edozein jakinerazpen, proposamen, etab. aurkeztu eta eztabaidatua izan dadin. Hauen edukina, ordutegiko mugapenak eta lehentasunak ikusirik, Mahaiak erabakiko du nolako tratamendua eman bakoitzari.

## **8. Saioetako ordutegia eta gaitegia**

Martxoak 19:

- 9,00 - Delegatuen akreditazioa.
- 9,30 - Kongresuko Mahaiaren aurkezpena eta hautaketa.
- 9,45 - Kongresuko Arautegiaren onestea.
- 11,00 - Atsedena dia.
- 11,30 - Delegazio gonbidatuen aurkezpena.
- 12,00 - «Egungo Egoeraren Analisia» Txostenaren aurkezpena.
- 12,30 - Aurkeztutako zuzenketen debatea eta botazioa.
- 13,30 - Saioaren amaiera.
- 15,30 - Debatearen jarraipena.
- 17,30 - Eztabaidatutako Txostenaren Botazioa.
- 17,30 - Atsedena dia.
- 18,00 - «Sindikalgintza» Txostenaren aurkezpena.
- 18,30 - Aurkezturiko zuzenketen debatea eta bozketa.
- 20,30 - Saioaren amaiera.

Martxoak 20:

- 8,30 - Debateen jarraipena.
- 11,00 - Txostenaren botazioa.
- 11,00 - Atsedenaldia.
- 11,30 - «Organizazioa» Txostenaren aurkezpena.
- 12,00 - Aurkezturiko zuzenketen eztabaida eta botazioa.
- 13,30 - Saioaren amaiera.
- 15,30 - Debateen jarraipena.
- 17,30 - Herrialdeko Koordinatzaileen hautaketa.
- 17,30 - Atsedenaldia.
- 18,00 - Estatutuei buruzko Ebazpenaren aurkezpena eta onespina.
- 18,30 - Euskarari buruzko Ebazpenaren aurkezpena eta onespina.
- 19,30 - Idazkaritza Nazionalaren hautaketa.
- 20,00 - «Indargintza eta Pakea» Ebazpenaren aurkezpena eta onespina.
- 20,30 - «Industria Egoera» Ebazpenaren aurkezpena eta onespina.
- 21,00 - Idazkaritza Nazional hautetsiaren aurkezpena.
- 21,15 - Saioaren amaiera.

## **9. Klausura ekitaldia**

Martxoak 21:

- 11,00 - Trikitilariak eta bertsolariak.
- 11,30 - Ekitaldiaren azalpena.
- 11,35 - Delegazio gonbidatuen interbentzioa.
- 11,50 - Beste interbentzio batzuk.
- 12,15 - Bertsolariak.
- 12,30 - K.en interbentzioa.
- 12,45 - Agurrak.
- 13,00 - Trikitilariak.
- 13,15 - Idazkaritza Nazionala eta Iraunkorra Nazionalaren aurkezpena.
- 13,30 - Idazkaritza Nazionalaren interbentzioa.
- 13,45 - Biltzarraren klausura.

Hemengo ordu hauek guztiak orientazio gisa emanak dira. Gero Kongresuko Mahaiaren esku egonen da ordutegia Kongresuaren martxara eta bilakaerara egokitzea.

**BATASUN NAZIONALA**

Gasteizen, 1992.eko martxoaren 7an